

# "AMA BEGIRA ZAZU"

## AURTENGO MAGDALENETAN

Andoni Ugarte

**A**spaldidanik Ereintzak eutsi izan dio Magdalenetan euskarazko antzerkia egiteko ohiturari eta aurten ere ez dute huts egin nahi izan ereintzatarrek.

Jaietako giroa gogoan hartuz eta umoreak zenbateko estimua izan ohi duen ikusita, oraingoan ere hasieratik amaieraraino umorez blaitutako antzerki lana eskainiko digute. Bere garaian, azken laurogei hamarkadaren amaieran oso arrakastatsua izan zen "Ama begira zazu" Euskal Herri osoan. Antzerki mundua bere urterik hoberenetan aurkitzen ez bazen ere, aretoak jendez gainezka betetzeko adineko indarra izan zuen.

### Antzerki lana

Kontxu Odriozolak eta Elena Iruretak aktoreek 1989an idatzitako lan honek baditu bere berezitasunak. Ez da jakineko argumentuan oinarritutako lana, ez du antzerkietan ohi den bezala, hasiera, korapiloa eta amaiera josten dituen jakineko istorio, gertaera edo pasadizorik. Atal desberdinez osatutako puzzle baten antzekoa da obra osoa. Egoerak eta kokaguneak desberdinak dira, elkarren artean inongo loturarik ez dutenak, baina, aldi berean, gorabehera irrigarriak biltzen dituztenak, umore moldetan landutako egoerak eta elkarrizketak.

Hasieratik, esaterako, jatatxean ikusiko ditugu Maidolo, Majesus, Jose Ramon eta Nagusia, bakoitza bere ardua eta zereginarekin, zenbat buru hainbat aburu erakutsiz. Ibili ibilian, edozein jatatxeko sukalde eta antolaketan agertzen diren gorabeherak...Baina, hori bai, farra eraginarazteko modukoak. Esan bezala, jatatxetik hasi eta ondoren beste hainbat pasadizo eta ezusteko...Ez ditugu guztiak aipatutako, egun horretan antzerkira jotzen duenak gehiago goza dezan.

Umorea aipatu dugu eta halaxe da. Batzuetan pertsonaien izaerak sortarazten du irriparra, bestetan testuaren trataerak, beste zenbaitetan hizkuntza aldaketak eta guztietan eszeneratzen denaren eta eguneroko bizitzan gerta ohi denaren, edota gerta daitekeenaren, arteko antzekotasuna.

### Antzez taldea

Antzez talde orekatua eta egokia bildu da Ereintzaren inguruan. Batzuek beteranoak dira, gure herrian aspaldiko urtetan ikusi eta txalotu izan ditugunak. Besteak, adinez gazteagoak, baina antzerkigintzaren eskarmentua ondo barneratua daukatenak. Eta badira Ereintzarekin lehen aldian arituko direnak ere.

Hona hemen antzezleriak: Arantza Perez, Sabin Irastorza, Eli Pescador, Aitor Etxebeste, Arantza Sanz, Luis Elizetxea, Jaione Pikabea, Sebas Irastorza, Nahia-ra Gago eta Josu Izagirre. "Ama begira zazu" ikustera hurbiltzen denak, aktore bera paper eta zeregin desberdinetan ikusteko zoria ere izango du. Alde horretatik, saio interesgarria izango dela bistan da.

### Sabin Irastorza "Pittin"

Irakurleak jakin badaki antzerkia bere osotasunean hartu beharreko ikuskizuna dela, aktoreen lanaz gain, musikak, jantziak, argiak, muntaia eta dekoratuak, besteak beste, zer ikusi zuzena dutela, antzerkia elementu guri horien artean osatzen eta mamitzen dela.



Andoni Korta ("Añarbe")

“Ama begira zazu” lanari dagokionez, garrantzi handikoa da dekoratuen indarra. Berez, egoerak desberdin ugari gertatzen denez, antzeztan den gaia ere desberdina izanik, dekoratuari tra- taera berezia eman beharra dakar. Horretan ere lagun langile eta leiala hurbildu gertu izan dute ereintzarrek. Sabin Irastorza “Pittinen” eskutik, konta ahal ezin ordutan lan eginez, datozkigu dekoratuak. Ez da Ereintzarekin lan egiten duen lehen aldia eta ez al da azkena izango.

Sabinek aspaldi erakutsi zuen arte ederrekiko zaletasuna, ikasketak ere bide horretatik burutu zituen. Hainbat sari ere irabazi izan duen gaztea da. Oraingo honetan jakineko egoerarekin zer ikusi zuzena izango duen dekoratu andana prestatu du. Bihoakio gure esker ona.

## Añarbe gogoan

Ereintza taldeko sortzaile eta urte luzetan zuzendari izan zen Andoni Korta “Añarbe” gogoan dute gaur egun ereintzarrek. Heriotzaren 25. urteu- rrena zela eta “Añarberen bila” antzeztu zuten

haren omenez eta, geroztik ere, huraxe dute gogo- an ekitaldi hau antolatzerakoan. Izan ere, Andoni Kortaren garaian, herriko euskal festetan euskarari bereari aitortzearren eta euskaldunak gozatzearren, antolatu ohi zuten urtero-urtero antzerki saioa.

Andoni Kortak garrantzi handia ematen zien gisa honetako ospakizunei. Konturatzen zen garai hartan eskola gehienbat erdarazkoa baitzen, euskal- dunak ez zuela euskaraz irakurtzeko ohiturarik, zaila egiten zitzaiola. Irakurriz goza ezin zezakeen hura begi eta belarri bidez eskuratzeko bideak zabaltzea komeni zela euskaldunak euskaraz goza zezan.

## Esker ona

Ereintzak gogoan du eta esker ona erakutsi nahi die antzerkia ikustera urtero hurbiltzen direnei. Antzerkiak antzezlaria bezain beharrezko du ikus- lea ere eta Erreterian behinik behin jendeak ondo erantzuten duela ikusteak animatu egiten ditu antzezlarien buru bihotzak.

Aurten ere gozatu on bat hartzeko zoria izan- go dugu.



Antzestutako obra. “Ernesto izatearen garrantzia” (Madalenak 2001).  
Zutik ta ezkerretik: David Gomara, Jaione Lizarazu, Andoni Agirregomezkorta, Ekaitz Gonzalez, Josu Izagirre, Jaione Pikabea, Sabin Irastorza ta Mikel Ugalde. Eserita: Naiara Gago, Arantxa Perez Gaztelu ta Lierni Garcia.